

3. JARDUERA:

Jarduera honetan hauxe aztertuko dugu: nola garatzen diren curriculumeko oinarrizko gaitasunei loturiko arloaren helburuak (gaitasun gisa adieraziak) ikasmaila bateko eduki-blokeetan zehar, eduki horiei dagozkien ebaluazio-irizpideekin batera.

CURRICULUM BERRIAREN ATALEN ARTEKO ERLAZIOA (1.DBH)

OINARRIZKO GAITASUNA	ARLOAREN HELBURUAK (GAITASUNAK)	EDUKIAK	EBALUAZIO- IRIZPIDEAK
<p>Informazioa Tratatze eta Teknologia Digitala Erabiltzeko Gaitasuna</p>	<p>1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p> <p>2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.</p> <p>7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.</p>	<p>I. EDUKI BLOKEA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio esanguratsuenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. o Behar bezala entzunda, informazioak antzematea eta hautatzea; entzuten jakitea. o Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak. o Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko. <p>IV. EDUKI-MULTZOA</p> <ul style="list-style-type: none"> o Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea. <p>Hainbat euskarritan dauden eskola-hiztegiak eta beste kontsulta-lan batzuek hizkuntzari buruz ematen dituzten informazioak (batez ere, hitz motei, horien arteko semantika-loturei eta araudiari buruzkoak) interpretatzea, eta testuetako hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak garatzea.</p>	<p>2.1 Ea identifikatzen eta eskuratzen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.</p> <p>2.3. Ea antzematen duen testuen ideia orokorra: zer kontaktzen duen.</p> <p>2.4. Ea identifikatzen eta ondorioztatzen dituen irakurketarako egokiak diren informazioak.</p> <p>2.6. Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatze teknika; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.</p> <p>3.1. Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio garrantzitsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.</p> <p>3.7. Ea erabiltzen dituen ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, laguntza moduan, ahozko aurkezpenak egitean.</p> <p>5.1. Ea liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen dituen, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.</p> <p>5.2. Ea hautatzen duen helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa.</p> <p>13.1. Ea erabiltzen dituen bilatzaileak informazioa aurkitzeko.</p> <p>13.2. Ea dakien informazioa gordetzen eta berreskuratzen. Ea, beste norbaiten laguntzari esker, gai den web-orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratze eta inprimatzeko.</p> <p>13.4. Ea erabiltzen dituen testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak: edizioa, zuzentzaile ortografikoa...</p> <p>13.5. Ea testu-prozesadore baten funtzio estandarrek gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, eta tresna hori baliatzen duen ahozko aurkezpenetan laguntzeko nahiz testu idatziak sortzeko.</p>